

Gobernu Batzarraren Akta

2025eko apirilaren 07a

Bildutakoak:

| | | |
|-----------------------------------|--|----------------------------------|
| | | Akta Zenbakia 00000004 |
| Patxi Ibarguren Etxeberria | Lehendakaria eta Hernaniko Udaletik | Eguna 2025/04/07 |
| Pepe Iparraguirre Balda | Andoaingo Udaletik | Iraupena |
| Iratxe Begiristain Otegi | Usurbilgo Udaletik | - |
| Jorge Segurado Iriondo | Urnietako Udaletik | |
| Nuria Fernández Castrillo | Lasarte-Oriako Udaletik | |
| Xabier Urdangarin Lasa | Astigarragako Udaletik | |

Asistentzia teknikoa:

| | |
|--------------------------------------|----------------------------------|
| Julen Mungia Gorrotxategi | Idazkari-Kontuhartzzailea |
| Helene del Río Laboa | Zuzendaria |

Ez dira bertaratu eta etorri ezina adierazi dute:

Parte hartzen du ere

Gai Zerrenda

- 1.- 2025/03/24(e)an egindako bileraren aktaren zirriborroa irakurri eta onartzea, bidezko bada.
- 2.- Beterri-Buruntzako Udalen gizarte zerbitzuen taldearen aurkezpena
- 3.- Abian jarriko diren egitasmoen berri ematea: ekintzailetza-formakuntzak, lanaren zentzua eta digitalizazio saioak herriean (Beterri-Buruntza digitala herrian)
- 4.- Turismo marka eta nortasunaren lanketaren berri ematea
- 5.- Komunikazio eta harremanetarako teknikariaren funtzioko definitzea
- 6.- Galdera, erregu eta proposamenak.
- 1.- Lectura y aprobación, si procede, del borrador del acta de la sesión celebrada el 24/03/2025.
- 2.- Presentación del grupo de servicios sociales de los Ayuntamientos de Beterri-Buruntza
- 3.- Dar a conocer los proyectos que se van a poner en marcha: formación en emprendizaje, lanaren zentzua y sesiones de digitalización en los municipios (Beterri-Buruntza digitala herrian)
- 4.- Dar a conocer la marca turística y la elaboración de la identidad
- 5.- Definir las funciones del/a técnico/a en comunicación y relaciones
- 6.- Ruegos, preguntas y propuestas.

Nahikoa quorum dagoenez eta Lehendakaria eta Idazkaria ere bertan daudenez, bilkura baliozki eratzen da.

1.- Beterri-Buruntzako Udalen gizarte zerbitzuen taldearen aurkezpena

Lehendabizi, gai ordeneko puntu honekin hasi zen bilera, izan ere, 6 udalerriek osatzen duten Gizarte Zerbitzuetako taldearen ordezkariak etorri ziren aurkezpena egitera. Zehazki, Oihane Hernanitik, Maria Usurbildik eta Lorena Astigarragatik etorri ziren, nahiz eta taldean ere Andoaingo, Urnietako eta Lasarte-Oriako teknikariak ere egon.

Azken finean, eskualdeko gizarte zerbitzuei buruz egoera zein den plazaratu zuten, beharrak eta erronka nagusiak zeintzuk ziren aurkezteko. Horietako behar batzuk udalerretik haratagokoak direla aipatu zuten eta, behar bada, Mankomunitatea instrumentu egokia izan daitekeela behar horiei erantzuteko. Hala ere, ez dute proposamen zehatzik ekarri, eta aurkezpenaren helburua eskualdeko egoera eta erradiografia zein den azaleratzea izan da. Hori ikusita, bide bat irekitzeko aukera ikusi dute Mankomunitate eta udalerrien artean. Hala ere, elkarlan hori zein den eta nolakoa den ez dakite oraindik, nahiz eta horri buruz hausnartzeko gogoeta zabaldu duten.

Gainera, esan dute GFAk eskualde mailan lan egiten duenean gizarte zerbitzuei buruz talde hau izaten dela eskualdeko ordezkaria. Bestalde, aipatu dute urte asko daramatzatela 6 udalerriak elkarlanean gai honetan, baina udalerri batetik baino haratago zihozaten ekintzak zapuztu egiten zirela antzeman dute eta zailtasun handiak jasan dituzte. Horregatik, orain Mankomunitatea sortuta dagoela ikusita, agian, interesgarria iruditzen zaie elkarrekin lana egiteko aukera zabaltzea.

Aurkezpena bukatutakoan, Astigarragako ordezkariak galdu die ea gainontzeko eskualdetan zer nolako elkarlanak egiten dituzten Mankomunitate eta udalerrien artean eta erantzun die Tolosa eta Zarautz eredugarriak direla gai honetan, nahiz eta, eskualde honetan benetako elkarlana egiteko gai bagara, aitzindariak izango ginatekeen.

Astigarragako ordezkariak erantzun du prest dagoela eskualdeko diagnosi bat egiteko, benetan jakiteko zein den eskualdeko egoera eta zer behar dauden, eta hortik aurrera, behar bada, elkarlana egiteko udalerriekin batera edo ez. Gainera, gehitu du GFAtik laguntza jaso badezakegu horretarako, hobeto.

Usurbilgo eta Andoaingo ordezkariak ere alde agertu dira hasierako eskualdeko diagnosi bat egitera, eskualdeko egoera zein den ondo jakiteko. Ondoren, hori aztertuta, ikusiko dela zer nolako jokabidea hartu horren aurrean.

Urnietako ordezkariak esan du beraiek, ezer baino lehen, Urnietan barne mailan landu behar dutela gaia, ondo aztertu, eta gero ikusiko dutela nola jokatu.

Lehendakariak esan du berari ere ondo iruditzen zaiola hasierako lanketa hau egitea, eskualdeko erradiografia zein den ikusteko eta gero, behar bada, koordinatuko garela beharren arabera.

Zuzendariak aipatu du, gainontzekoek jakin dezaten, BBMk ere deribazioak jasotzen dituela udalerrietako gizarte zerbitzuetatik enplegu egitasmoean parte hartzeko.

Lasarte-Oriako ordezkarriak aipatu du bera alde dagoela aurkezpenean aipatu dituzten beharrekin eta ulertzen duela egoera zein den. Ondoren, BBMko Estatutuei erreferentzia egin die, hain zuzen ere, bertako 5. artikuluari eta 1. Xedapen Iragankorrai.

Astigarragako ordezkarriak erantzun dio Estatutuek ez dutela debekatzen gizarte zerbitzuen inguruan lanketa egitea, baizik eta, bikoitzasunak ekidite aldera, lanen bat garatu nahi bada, udalerriekin hitzarmen bat sinatu behar dela besterik ez duela jartzen. Eta bera horren alde azaldu da. Oraingo diagnosi eta errerealitateari buruzko gogoeta bat egitea, eta ondoren, egoerari aurre egiteko lanketa bat egitea beharrezkoa ikusten bada, ba orduan sinatu dezakegula hitzarmena udalekin horretarako.

Lehendakariak gogoratu du aurkezpenekoa ez dela ezer zehatza ezta proposamen itxi bat. Baizik eta egoera latz bati aurre egiteko atea ireki dezakeen gai bat besterik ez dela. Baino orain planteatzen dena da hasierako lanketa bat egitea, errerealitatea hori zein den ondo aztertzeko eta, hala ikusten bada, etorkizunean, lanketa amankomun bat egiteko.

Lasarte-Oriako ordezkarriak esan du berak bere Idazkariarekin hitz egin behar duela gai hau benetan jorratu dezakegun ikusteko. Bera ez da gai hau lantzearen kontra azaldu, baizik eta esan duena da Estatutu batzuk daudela Mankomunitatean, errespetatu behar direnak, hortaz, erabakitzen bada lanketa hau egitea, agian, Estatutuak aldatu beharko genituzkeela. Hala ere, gai hau bere idazkariarekin landuko duela esan du.

Urnietako ordezkarriak aitortu du aurkezpen hau tokiz kanpo zegoela, ez delako dokumentaziorik jaso aldez aurretik, eta ez duelako uste udalerrietako teknikariek proposamen hau mahai gainean jarri behar dutenik, baizik eta hori politikarien gaia dela.

Astigarragako ordezkarriak erantzun dio, bere ustez, aurkezpena ez dagoela tokiz kanpo. Eskualdeko gai hau foro batean hitz egin bada, logikoa iruditzen zaiola Gobernu Batzar honetan izatea, izan ere, hau da 6 udalerriak eta BBM elkartzen gaituen hileroko foro bakarra. Gainera, gizarte zerbitzuen gaia gure Estatutuetan espresuki aurreikusia dago.

Lasarte-Oriako ordezkarriak gehitu du gurea gai sozioekonomikoak jorratzen dituen Mankomunitatea dela hau

Lehendakariak gehitu du bilera hau aspalditik eskatu dutela eta dokumentaziorik ez zegoela prestatuta ez aurreikusia bileran erabiltzeko. **Gaiarekin ixteko, Lehendakariak animatu ditu bakoitzak bere udalerriak gai hauek lantzeara eta datorren bileretan komentatuko dugula zer pauso eman.** Aitortu du ere horrelako zalantzak geroz eta gehiago izango ditugula, hau da, zer gai jorratu edo ez Mankomunitatean. Udal-teknikari askok horrelako eskaerak egiten dituztela.

2.- 2025/03/24(e)an egindako bileraren aktaren zirriborroa irakurri eta onartzea, bidezko bada.

Lehendabizi, 2025/03/24 datako batzarraldiari dagokion akta irakurri ondoren, Lehendakariak honen onarpena bozketara jarri du eta Gobernu Batzordeak, aho batez, ontzat eman du.

3.- Abian jarriko diren egitasmoen berri ematea: ekintzailetza-formakuntzak, lanaren zentzua eta digitalizazio saioak herriean (Beterri-Buruntza digitala herrian)

Lehendakariak esan du ekintzailetza-formakuntzak, oraingoan, guk emango ditugula, gure baliabideekin. Ekintzailetza-teknikariak emango ditu, gai horiek kontrolatzen dituelako eta bera lehenago ibiltzen zelako ikastaro hauek ematen. Aurten bi aldiz egingo dira.

Lanaren zentzua abian dagoela aipatu du eta digitalizazio-saioei buruz esan du udal bakoitzarekin lantzen ari garela. Hernani eta Lasarte-Oriarekin saio hauek itxita ditugula aipatu du eta Ingeneriak Elkartarekin egingo direla. Urnieta eta Astigarragan gai hau asko landu edo beste era batera jorratuko dela adierazi da eta Usurbil eta Andoain erantzun bat ematekotan gelditu direla.

4.- Turismo marka eta nortasunaren lanketaren berri ematea

Lehendakariak aipatu du turismo mahai teknikoa egin zela, Zuzendaria eta Turismo-teknikariak bertan parte hartu zuten. Bertan Gobernu Batzarrean adierazi ziren gaiak landu ziren: marka, balioak, agenda, mapa, mendi ibilbideak, etab. Batez ere, garrantzi gehiena turismo markaren lanketak zeukan eta landu zen zer zein izan beharko lukeen hemendik aurrera BBMko turismo markak. Ia-ia aho batez onartu zen marka berria Beterri-Buruntza izaten beharko litzatekeela. Udal teknikari batek Beterri aipatu zuen baina besteek Beterrik eremu zabalago bat jasotzen duela esan zuten eta Beterri-Buruntza izatekotan gelditu ziren. Marka horrek bere bidea egin beharko duela esanez.

Orain, kontraste politiko bat egin nahi da horrekin eta, hortaz, zerbait komentatu nahi badute horren inguruan, hori egiteko aukera ireki du Lehendakariak.

Astigarragako ordezkarria alde agertu da marka horrekin eta gehitu du orain markak bere ibilbidea egin behar duela.

Urnietako ordezkariak ez du gaizki ikusten Beterri-Buruntza marka berria.

Usurbilgo ordezkariak galdu du ea bakoitzak bere udalean gai hau landu behar duen edo ez. Lehendakariak erantzun dio datorren Gobernu Batzarrera ekartzeko egin nahi diren ekarpenak. Gainera, aprobetxatu du esateko Beterri-Buruntza Mankomunitatea berria dela eta marka berdina izatea lagungarria izan daitekeela. Udalek barne mailan gaia landu eta ekarpenak egiteko aukera dutela adierazi du eta bitartean mankomunitateak aholkulari baten eskutik lanketan aurrera egin eta Gobernu Batzarrean deboluzioa egingo duela erabakia hartzeko.

5.- Komunikazio eta harremanetarako teknikariaren funtzioko definitzea

Lehendakariak aipatu du bidalitako dokumentazioan daudela definituta Komunikazio eta Harremanetarako teknikariaren funtzioko. Horietaz gain, berak gehitu du funtzi bat gehitzeko: sailen lanketetan euskara nola landu behar den kudeatzea, sail eta langileekin lankidetzen. Lan-munduan euskara lantzeko funtziola. Hau da, BBMk bere programetan pertsona eta enpresekin lan egiten duenean, euskara nola uztartu eta landu baitan hartzen duena.

Andoaingo ordezkariak galdu du ea teknikari hau gure bileretako itzulpengintzaz arduratuko den eta hori ez dagoela horrela zehaztuta erantzun zaio.

Udal-ordezkari guztiak alde azaldu dira aipatutakoarekin.

Gai Zerrendaz kanpo, *Galdera, erregu eta proposamen* atalera iritsi aurrelik, eta gaiaren eztabaidea presazkoa dela iritzi ondoren, aho batez, eta beraz, batzarkideen gehiengo osoaren quorumarekin, ondoko erabakiak hartu ziren

6.- Galdera, erregu eta proposamenak.

Lehendakariak hainbat aipamen egin ditu:

- a) Hernanin BBMren historikoaren eta egungo ekintza planaren aurkezpena egin zen. Ordu erdin egin zen. Ez ziren asko sartu programa bakoitza nolakoa den azaltzen. Programa baten gainean zehaztasun gehiago nahi duenari, aukera zabaltzen zaio hora korreo bidez edo telefonoz galdezko, baina erabaki zen aurkezpen hau laburtua izatea alor desberdinako politikariak eta teknikariak biltzen baitira eta bestela asko luzatuko zelako. Bilera Mankomunitateko egitura eta sailak garbi gelditzeko ere baliatu zen, ekintza plana aurkezteko aitzakiarekin. Zuzendariak gehitu du gobernantzaren inguruko pilularen bat ere eman zela, Udaletan eskualde

eta Gipuzkoa mailan lan egiten dugula jakin dezaten eta eskualdeko gobernantza sistema garbi gelditu dadin.

Hortaz, bilera hau gainontzeko udalerritan egin ahal izateko, udal-ordezkariak Zuzendariarekin harremanetan jartzeko eskatu die Lehendakariak, data bat finkatze aldera. Usurbilek maiatzaren 12ko aukera hartu du.

Lehendakariak argitu dio Lasarte-Oriako ordezkariori politikariek bere udalean egin beharreko gonbidapena dela. Lasarte-Oriako ordezkariori erantzun ados dagoela erantzun dio, nahiz eta bere enplegu-teknikaria noiz iritsiko zain dago, bilera horretan bera ere egon dadin.

- b) Maiatzaren hasieran Enpleguko mahai teknikoa deituko dela aurreratu du, batez ere, Tokiko Enplegu Ekintzak programa prestatzen hasteko.
- c) Lehendakariak mahai gainean jarri du Mankomunitateko teknikari batekin arazoak ditugula lana egiterako garaian. Bere lana ez duela egiten, egiten duenean gaizki egiten duela eta batzuetan inorekin adostu gabeko erabakiak hartzen dituela Mankomunitatea konprometitzen dutenak. Eragileren batekin arazoak izan ditugula. Hortaz, ardura publikoagatik eta ikusita probaldian dagoela, seguraski, probaldia ez gainditzeko erabakia hartuko dela aurreratu die eta horretarako dagokion justifikazioa aurkeztuko dela, Batzordeak esandakoa ondo ikusi duelarik.
- d) Bukatzeko, Urnietaiko ordezkariori galdu du Enpresa eta Iraunkortasun teknikariaren ordezkapena nola dagoen eta Zuzendariak erantzun dio, lanpoltsarik aurkitu ez denez (oso lanpostu berezia delako), Lanbiden dagoela eskaintza eta orain elkarrizketak hitzartu eta horiek egiten ari dabilzala, tribunalean enpresa eta sustapen teknikaria eta Zuzendarria bera egonda. Bestalde, aprobetxatu du esateko Enpresa eta Prestakuntza teknikari berria Aste Santuaren ondoren etorriko dela eta alorrean experientzia duela dirudiela.

Eta beste aztergairik ezean, lehendakariak amaitutzat eman du ohiko batzarraldia, 14:12 minuto zirenean. Idazkari-kontuhartzaileak batzarraldiari dagokion agiri hau idatzi eta Lehendakariak irakurri eta ontzat eman ondoren, biek izenpetu dute, bat etorriz Toki Erakundeen Antolamendu, Jardunbide eta Araubideari buruz indarrean dagoen Erregelamenduaren 110.2 artikuluan agindutakoarekin. Eta horren guztiaren fede, nik, naizen honek, ematen dut.

O.E., / Vº Bº
Lehendakaria

Idazkari-kontuhartzailea

1.- Presentación del grupo de servicios sociales de los Ayuntamientos de Beterri-Buruntza.

En primer lugar, se inició la reunión con este punto del orden del día, ya que acudieron a realizar la presentación representantes del equipo de Servicios Sociales que lo forman los 6 municipios. En concreto, asistieron Oihane de Hernani, María de Usurbil y Lorena de Astigarraga, aunque en el grupo también están los técnicos/as de Andoain, Urnieta y La-sarte-Oria.

En definitiva, se planteó la situación sobre los servicios sociales de la comarca para presentar las necesidades y los principales retos. Apuntaron que algunas de estas necesidades van más allá del municipio y que, en su caso, la Mancomunidad puede ser un instrumento adecuado para atenderlas. Sin embargo, no aportan propuestas concretas y el objetivo de la presentación ha sido explicar cuál es la situación y la radiografía de la comarca. A la vista de ello, han visto la posibilidad de abrir un camino entre la Mancomunidad y los municipios. Sin embargo, todavía no saben cuál es y cómo es esa colaboración, aunque han abierto una reflexión al respecto.

Además, dicen que cuando la DFG trabaja a nivel comarcal este grupo es el representante de la comarca en relación a los servicios sociales. Por otra parte, señalan que los 6 municipios llevan muchos años colaborando en este tema, pero han detectado que las acciones que van más allá del municipio se frustraban y han sufrido grandes dificultades. Por ello, viendo que ahora está creada la Mancomunidad, tal vez les parezca interesante ampliar la posibilidad de trabajar conjuntamente.

Finalizada la presentación, el representante de Astigarraga pregunta por las colaboraciones que se realizan en el resto de comarcas entre Mancomunidades y municipios, a lo que responde que Tolosa y Zarautz son un ejemplo en este tema, aunque si somos capaces de hacer una colaboración real en esta comarca seríamos pioneros.

El representante de Astigarraga responde que está dispuesto a realizar un diagnóstico comarcal para conocer la situación y necesidades de la comarca y a partir de ahí, colaborar o no con los municipios. Añade, además, que si podemos recibir ayuda de la DFG para ello, mejor.

Los representantes de Usurbil y Andoain también se muestran partidarios de realizar un diagnóstico inicial de la comarca para conocer la situación de la misma. A continuación, y a través de su análisis, se verá qué tipo de actuación se va a adoptar ante el mismo.

El representante de Urnieta comenta que ellos, antes de nada, tienen que tratar el tema a nivel interno en Urnieta, que lo estudiarán y verán cómo actuar.

La Presidenta dice que a ella también le parece bien hacer este trabajo inicial para ver cuál es la radiografía de la comarca y luego, si es necesario, nos coordinaremos en función de las necesidades.

La Directora dice para conocimiento del resto, que BBM también recibe derivaciones de los servicios sociales de los municipios para participar en los planes de empleo.

La representante de Lasarte-Oria comenta que ella está a favor de las necesidades que han comentado en la presentación y entiende cuál es la situación. A continuación, hace referencia a los Estatutos de BBM, concretamente a su artículo 5 y 1. Disposición Transitoria.

El representante de Astigarraga le responde que los Estatutos no prohíben realizar un diagnóstico inicial en torno a los servicios sociales, sino que, para evitar duplicidades, se limita a establecer que si se quiere desarrollar algún trabajo, hay que firmar un convenio con los municipios. Y él se muestra a favor. Si se considera necesario realizar una reflexión sobre el diagnóstico y la realidad actual y, posteriormente, realizar un trabajo para afrontar la situación, entonces podemos firmar un convenio con los ayuntamientos para ello.

La Presidenta recuerda que lo de la presentación no es nada concreto ni una propuesta cerrada. Sino que no es más que un tema que puede abrir la puerta para hacer frente a una situación dura. Pero lo que ahora se plantea es hacer un trabajo inicial para analizar bien cuál es esa realidad y, si se ve, hacer un trabajo común en un futuro.

La representante de Lasarte-Oria comenta que ella tiene que hablar con su Secretario/a para ver si realmente podemos tratar este tema. Ella no se ha mostrado contraria a trabajar este tema, sino que ha dicho que hay unos Estatutos en la Mancomunidad que hay que respetar, por lo que si se decide hacer esta tarea, quizás deberíamos modificar los Estatutos. No obstante, dice que trabajará este tema con su Secretario/a.

El representante de Urnieta reconoce que esta presentación estaba fuera de lugar, ya que no se ha recibido documentación previa y no cree que los técnicos de los municipios tengan que poner esta propuesta encima de la mesa, sino que es un tema de políticos.

El representante de Astigarraga responde que considera que la presentación no está fuera de lugar. Si este tema comarcal se ha tratado en un foro, le parece lógico que se lleve a esta Junta de Gobierno, ya que es el único foro mensual que une los 6 municipios y la Mancomunidad. Además, el tema de servicios sociales está expresamente previsto en nuestros Estatutos.

La representante de Lasarte-Oria añade que la nuestra es una Mancomunidad que trata temas socioeconómicos.

La Presidenta añade que esta reunión había sido solicitada hace tiempo y que no había documentación preparada ni prevista para su utilización en la reunión. Para cerrar el tema, la Presidenta anima a los municipios a trabajar estos temas y a que en las próximas reuniones comentemos los pasos a dar. También reconoce que este tipo de dudas las tendremos cada vez más, es decir, qué temas vamos a tratar o no en la Mancomunidad. Muchos técnicos municipales hacen este tipo de peticiones.

2.- Lectura y aprobación, si procede, del borrador del acta de la sesión celebrada el 24/03/2025.

Leída en primer lugar el acta correspondiente a la sesión del 24/03/2025, la Presidenta somete a votación la aprobación de la misma, la cual es aprobada por unanimidad de la Junta de Gobierno.

3- Dar a conocer los proyectos que se van a poner en marcha: formación en emprendizaje, lanaren zentzua y sesiones de digitalización en los municipios (Beterri-Buruntza digitala herrian)

La Presidenta ha dicho que las formaciones en emprendimiento, esta vez, las impartiremos nosotras con nuestros recursos. Los impartirá la técnica de emprendimiento, ya que controla estos temas y ella ya venía impartiendo estos cursos antes. Este año se realizarán dos veces.

Comenta que el sentido del trabajo está en marcha y sobre las sesiones de digitalización dice que se está trabajando con cada ayuntamiento. Comenta que tenemos estas sesiones cerradas con Hernani y Lasarte-Oria y que se realizarán con la Asociación Ingenieria. Se indica que en Urnieta y Astigarraga este tema se trabajará mucho o de otra manera y que Usurbil y Andoain han quedado en darnos una respuesta.

4.-Dar a conocer la marca turística y la elaboración de la identidad.

La Presidenta comenta que se hizo una mesa técnica de turismo en la que participaron la Directora y el Técnico de Turismo. En ella se trataron los temas que se expusieron en la Junta de Gobierno: marca, valores, agenda, mapa, rutas de montaña, etc. Sobre todo, la mayor importancia tenía la elaboración de la marca turística y lo que debería ser la marca turística de BBM a partir de ahora. Prácticamente por unanimidad se aprobó que la nueva marca debería ser Beterri-Buruntza. Un/a técnico/a municipal se refirió a Beterri, mientras que los demás comentaron que Beterri recibe una zona más amplia y se quedaron en Beterri-Buruntza. Diciendo que esa marca deberá seguir su curso.

Ahora se quiere hacer un contraste político y, por lo tanto, si quieren comentar algo al respecto, la Presidenta ha abierto la posibilidad de hacerlo.

El representante de Astigarraga se muestra favorable con esta marca y añade que ahora la marca tiene que hacer su propio recorrido.

El representante de Urnieta no ve mal la nueva marca Beterri-Buruntza.

La representante de Usurbil pregunta si cada uno tiene que tratar este tema en su ayuntamiento o no. La Presidenta responde que las aporten en la próxima Junta de Gobierno. Además, aprovecha para comentar que la Mancomunidad de Beterri-Buruntza es nueva y que una marca igual puede ayudar. Señala que los ayuntamientos tienen la oportunidad de trabajar el tema y hacer aportaciones a nivel interno, mientras que la mancomunidad va a avanzar en el trabajo con un asesor y va a hacer una devolución en la Junta de Gobierno para tomar la decisión.

5.- Definir las funciones del/a técnico/a en comunicación y relaciones.

La Presidenta comenta que en la documentación remitida están definidas las funciones del/la Técnico/a de Comunicación y Relaciones. Añade, además, la función de gestionar el tratamiento del euskera en los trabajos de los departamentos, en colaboración con los departamentos y los trabajadores. La función de trabajar el euskera en el mundo laboral. Es decir, cuando BBM trabaja en sus programas con personas y empresas, que incluya cómo combinar y trabajar el euskera.

El representante de Andoain pregunta si este técnico se encargará de la traducción de nuestras reuniones y se le contesta que no está así definido.

Todos los representantes municipales han mostrado su conformidad con lo anterior.

Fuera del Orden del Día, antes de llegar al apartado de Ruegos, Preguntas y Propuestas, y tras considerar urgente el debate del asunto, por unanimidad y con el quórum de la mayoría absoluta de los miembros de la Junta, se adoptaron los siguientes acuerdos.

6.-Ruegos, preguntas y propuestas

La Presidenta ha realizado varias comentarios:

a) En Hernani se realizó una presentación del histórico y actual plan de acción del BBM. Se hizo a media hora. No se incluyeron muchas explicaciones sobre cómo es cada programa. A quien quiera más detalle sobre un programa se le abre la posibilidad de consultarla por correo o por teléfono, pero se decidió que esta presentación fuera resumida porque se reunieron políticos/as y técnicos/as de diferentes ámbitos y si no se alargaría mucho. La reunión sirvió también para clarificar las estructuras y departamentos de la Mancomunidad, con la excusa de presentar el plan de acción. La Directora añade que también se entregó alguna explicación de gobernanza para que los Ayuntamientos sepan que trabajamos a nivel comarcal y a nivel de Gipuzkoa y que el sistema de gobernanza comarcal quede claro.

Por lo tanto, para poder celebrar esta reunión en el resto de municipios, la Presidenta solicita a los representantes municipales que se pongan en contacto con la Directora para fijar una fecha. Usurbil ha elegido la opción del 12 de mayo.

La Presidenta aclara a la representante de Lasarte-Oria que es una invitación a los políticos de su Ayuntamiento. La representante de Lasarte-Oria responde que está de acuerdo, aunque está a la espera de que su técnico/a de empleo llegue para que también esté presente en esa reunión.

b) Adelanta que a primeros de mayo se convocará la mesa técnica de Empleo, sobre todo para comenzar a preparar el programa de Acciones Locales de Empleo.

c) La Presidenta pone encima de la mesa que con un técnico de la Mancomunidad tenemos problemas a la hora de realizar el trabajo. Que no hace su trabajo, que cuando lo hace, lo hace mal y que en ocasiones toma decisiones no acordadas con nadie, las cuales comprometen a la Mancomunidad. Que hemos tenido problemas con algún agente. Así, les adelanta que, por responsabilidad pública y a la vista de que se encuentra en

periodo de prueba, es muy probable que se adopte una decisión en la que no supere el periodo de prueba, para lo cual se presentará la correspondiente justificación, lo cual la Junta ha dado su visto bueno.

d) Por último, el representante de Urnieta pregunta cómo está la sustitución de la Técnica de Empresa y Sostenibilidad, a lo que la Directora responde que, dado que no se ha encontrado ninguna bolsa de trabajo (porque es una plaza muy especial), la oferta está en Lanbide y ahora se están acordando las entrevistas y se están haciendo, con la presencia de la técnica de empresa y promoción en el tribunal y la propia directora. Por otra parte, aprovecha para comentar que el nuevo Técnico de Empresa y Formación va a venir después de la Semana Santa y parece tener experiencia en la materia.

Y a falta de más asuntos que tratar, la Presidenta da por finalizada la sesión ordinaria a las 14:12 minutos. De conformidad con lo dispuesto en el artículo 110.2 del vigente Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen de las Entidades Locales, una vez redactado por el Secretario-Interventor el presente documento correspondiente a la sesión, leído y visto bueno por la Presidenta, ambos lo suscriben. Y a fe de todo esto, yo, que soy, doy.

O.E., / Vº Bº

Lehendakaria

Idazkari-kontuhartzailea



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2025BG010004-Akta Ofiziala/Acta Oficial (BETERRI BURUNTZA MANKOMUNITATEA)